


Herrian zer berri?

eh
bildu
**Laz
kao**



2025eko Uztaila



2 urteko balorazioa

Kultur eragileekin harremanetan

Diagnostikoa: 16-22 urteko lazkaotarrak

Lazkaoko jarduera ekonomikoaren azterketa

2 urteko balorazioa

Valoración 2 años

2023ko Udal Hauteskundeak bi urte atzera geratu dira dagoeneko. Legegintzaldiko ekuatorera iritsi gara eta momentu egokia dela deritzogu orain arteko ibilbidearen balorazio bat egiteko. Nondik gatozen, non gauden eta norantz goazen perspektibaz begiratzeko.

Las Elecciones Municipales de 2023 quedan ya dos años atrás. Hemos llegado al ecuador de la legislatura y creemos que es un buen momento para hacer una valoración del recorrido realizado hasta ahora. Mirar con perspectiva de dónde venimos, dónde estamos y hacia dónde vamos.

SARRERA

ENTRADA

- Lehenik eta behin gogoratu behar dugu Udal Hauteskundeetako emaitzetan EAJ eta EHBilduren artean 28 botoren alde egon zela. Boto alde txiki hori ordea, nahikoa izan da EAJren aldetik hainbat eta hainbat ekimen aldebarrez aurrera eramateko eta beste hainbeste baztertzeko. EHBildutik beti agertu gara prest Udal proiektuak elkarrekin landu eta garatzeko, herriaren isla izan beharko lukeen udal gobernu bat eraikitzeko. Esan beharrik ez dago, bi urte hauetan, EAJren jarrera EHBildurekiko, gobernu-oposizio rol soil batera mugatu dela. Udalean elkarlana eta kooperazioa bultzatzeko aukera ederra galtzen ari da EAJ.
- Bestalde, oposizioan egonagatik ere, badakigu zein bide eta zein ildo jarraitu nahi ditugun eta kostata ere lortu dugu hainbat proposamen aurrera ateratzea. Pozten gara hainbeste denboran **aldarrikatutako parte hartze prozesuak** martxan jartzeaz (aurrekontuak, txupinazioa...) eta herritarrei beraien ahotsa eta iritzia emateko aukera emateaz. Kultur eta kirol jardueretan ematen diren **laguntzak**, herriko haur parke bat **estaltzeko** proiektua aurrera eramatea... aspalditik EHBilduk aldarrikatzen zituen beharrak ziren. Ongi etorriak!
- En primer lugar, conviene recordar que en los resultados de las Elecciones Municipales la diferencia entre el PNV y EH Bildu fue de tan solo 28 votos. Esa pequeña diferencia ha sido suficiente para que el PNV haya impulsado unilateralmente numerosas iniciativas y haya dejado de lado otras muchas. Desde EH Bildu siempre hemos estado dispuestos a trabajar y desarrollar conjuntamente los proyectos municipales, para construir un gobierno local que debería reflejar la voluntad del pueblo. Cabe decir que en estos dos años, la actitud del PNV hacia EH Bildu se ha limitado a un mero rol de gobierno-oposición. El PNV está dejando pasar una gran oportunidad para fomentar la cooperación y el trabajo conjunto en el Ayuntamiento.
- Por otro lado, a pesar de estar en la oposición, tenemos claro el camino y la línea que queremos seguir, y aunque con esfuerzo, hemos logrado sacar adelante varias propuestas. Nos alegramos de haber puesto en marcha procesos de participación tan demandados desde hace años (presupuestos, chupinazo...), y de haber dado voz y oportunidad a la ciudadanía para expresar sus opiniones. Las ayudas en actividades culturales y deportivas, el proyecto para cubrir un parque infantil del pueblo... eran necesidades que EH Bildu venía reclamando desde hace tiempo. ¡Bienvenidas sean!



INBERTSIOAK ETA AURREKONTUAK:

INVERSIONES Y PRESUPUESTOS

- Zuetako askok gogoan izango duzuen bezala, berealdiko proiektuak agindu zituen PNVk kanpainan, **Lazkaok mugarik gabeko aurrekontua izango balu bezala**. Beste behin ere, bete ezin diren promesa sorta batean oinarritu zuten bere boto eskaera.
- Bestalde, legegintzaldia hasi eta gutxira (2023ko azaroan), Goierriko Hitzan irakurri genuen Udal Gobernuak **Agintaldirako Kudeaketa Plana** idatzi zuela, “lazkaotarren aurrean agintaldi honetarako ibilbide-orria, konpromisoa” izan behar zuena.
- Lehenengo eta behin esan behar dugu PNVk beste behin ere, beste inoren ekarpeni entzungor eginda landu zuela Plangintza hau. Izan ere, behin eta berriro eskatu ondoren, duela aste gutxi jaso dugu EH Bilduko udal ordezkariok Plan horren testua. Bertan kanpainako gain promesak nabarmen leundu arren, oraindik ere udal honen baliabideen mugak ezagutuko ez balituzte bezala jarraitzen dute.
- Eta jarrera horrekin aritu dira urte hauetan guztietan denon baliabideak kudeatzen: abiatu dituzten **proiektuen aurrekontuak kontrolik gabe haziz doaz**, hona hemen adibide batzuk:
- Como muchos y muchas recordaréis, el PNV prometió grandes proyectos durante la campaña, como si Lazkao tuviera un presupuesto sin límites. Una vez más, su petición de voto se basó en una serie de promesas que no podían cumplir.
- Además, poco después del inicio de la legislatura (en noviembre de 2023), leímos en el Goierriko Hitzza que el Gobierno Municipal había redactado un Plan de Gestión para la Legislatura, que debía ser “la hoja de ruta y compromiso para este mandato frente a la ciudadanía de Lazkao”.
- Lo primero que debemos señalar es que el PNV volvió a elaborar este Plan sin tener en cuenta las aportaciones de los demás. De hecho, tras pedirlo reiteradamente, ha sido hace apenas unas semanas cuando las y los representantes de EH Bildu hemos recibido el texto. Aunque en él se suavizan notablemente las promesas electorales, sigue dando la impresión de que no conocen los límites de los recursos municipales.
- Con esa actitud han gestionado los recursos comunes durante estos años: los presupuestos de los proyectos iniciados se han disparado sin control. Aquí algunos ejemplos:

PROIEKTUA PROYECTO	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	ORAIN ARTEKO AURREKONTUA PRESUPUESTO ACTUAL	GAINKOSTUA SOBRECOSTE
Kiroledegia Polideportivo	4.035.000 €	6.429.424 €	%52
Meandroko zementuzko bidea * Camino de cemento en Meandro	40.000 €	90.000 €	%125
Aresoko parke estalia * Parque cubierto de Areso	420.000 €	540.000 €	%29
Herri sarreretakoa kamerak * Cámaras en accesos del pueblo	20.000 €	30.000 €	%50
Hariztikoa zabuak Columpios en Harizti	12.000 €	17.000 €	%42

- * Lanak oraindik hasi ere egin ez diren arren, Udal Gobernuak berak aurreikusitako aurrekontua jasotzen du taulak, lanak amaitu bitartean sortuko diren gainkostuak kontuan izan gabe.
- Baina kudeaketa arduragabe honek izan du bere ondorioa: Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasuna (legez egin beharreko kontrol-ariketa) neurtzen duten hiru adierazleetatik bi ez ditu bete Lazkaoko Udalak, eta ondorioz, **etorkizuneko urteetako inbertsio ahalmena mugatuko duen Plan Ekonomiko Finantzario bat onartu behar izan du**. Planak berak jasotzen duenez, “inbertsioen lehentasunaren arabera, garrantzitsuenak egingo dira soilik”.
- Aunque las obras ni siquiera han comenzado, la tabla recoge el presupuesto previsto por el propio Gobierno Municipal, sin contar con los sobrecostos que surgirán hasta su finalización.
- Pero esta gestión irresponsable ha tenido consecuencias: de los tres indicadores que miden la Estabilidad Presupuestaria y la Sostenibilidad Financiera (control obligatorio por ley), el Ayuntamiento de Lazkao no ha cumplido dos, y en consecuencia ha tenido que aprobar un Plan Económico Financiero que limitará su capacidad de inversión en los próximos años. Tal y como recoge el propio Plan: “según la prioridad de las inversiones, solo se ejecutarán las más importantes”.

ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA VIVIENDA Y URBANISMO



2007tik aurrenekoz, etxebizitza lehen postura igo da herritarren kezka nagusien artean, azken Soziometroaren arabera (2025eko uztailean argitaratua EAEn). Emantzipazioa, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, gazteentzat aukera gabezia... kezka nagusi dira Lazkaon ere. EHBildun bat egiten dugu kezka honekin:

- Etxebizitzak merkatuaren esku utzita daude. Burbuila handitzen doa eta inork eta ezerk ez dio mugarik jartzen. Erantzukizuna denonda, herritarrena eta erakundeena, baina azken hauek eredu izan behar dute eta arazoari aurre egin.
- “Udal gobernua udalerrri osoa eremu tentsionatu izendatua izateko eskaera formal egin dezala” eskatu zuen EHBilduk mozio bidez 2024ko martxoaren 21eko Osokoan. PNVk ez zuen onartu. Ulertezina, kontuan hartzen badugu, alderdi bereko Goiak Donostia izendatzeko eskaera bideratua duela.
- Udalak bere esku dagoena egin behar du herriko egoerari erantzun bat emateko. Ekainean gurekin izan genuen Juankar Izagirre, Donostiako egoera azaltzen. Eta nahiz eta bi errealitate ezberdin diren Donostia eta Lazkao, garbi utzi zigun eragin daitekeela. Eta horretan jarri nahi dugu gure indarra. Ezer egin gabe ez da egoera aldatuko.
- EHBildun hilabeteak daramatzagu herriaren etorkizuneko beharrak zeintzuk izango diren detektatzen eta hurrengo urteetarako indarrean egongo den HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) ahalik eta egokiena diseinatzen. Lazkaoren garapena eta erabilerrak modu ordenatu eta jasangarrian arautuko dituen plana da, beraz garrantzi handikoa. **Herritarrek animatzen ditugu ekarpenak egitera eta parte hartzera, denontzako proiektua izango baita.**

Por primera vez desde 2007, la vivienda ha pasado a ser la principal preocupación de la ciudadanía, según el último Sociómetro publicado en julio de 2025 en la CAV. Emancipación, dificultad de acceso a la vivienda, falta de oportunidades para la juventud... son también preocupaciones principales en Lazkao. Desde EH Bildu compartimos esta preocupación:

- Las viviendas están en manos del mercado. La burbuja sigue creciendo y nadie ni nada pone límites. La responsabilidad es compartida, de la ciudadanía y de las instituciones, pero estas últimas deben dar ejemplo y hacer frente al problema.
- EH Bildu solicitó mediante moción en el Pleno del 21 de marzo de 2024 que el Ayuntamiento hiciera una solicitud formal para declarar todo el municipio como zona tensionada. El PNV no lo aprobó. Incomprensible, teniendo en cuenta que Goia, del mismo partido, ha tramitado esa solicitud para Donostia.
- El Ayuntamiento debe hacer todo lo que esté en su mano para responder a la situación local. En junio contamos con la presencia de Juankar Izagirre, quien explicó la situación en Donostia. Y aunque son dos realidades distintas, dejó claro que es posible influir en ella. Ahí queremos centrar nuestras energías. Si no se hace nada, la situación no cambiará.
- EH Bildu lleva meses identificando las necesidades futuras del municipio y diseñando el Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) que estará en vigor en los próximos años, para que sea lo más adecuado posible. Se trata de un plan muy importante, que regulará de manera ordenada y sostenible el desarrollo y usos del territorio de Lazkao. Animamos a la ciudadanía a participar y aportar, porque será un proyecto de todas y todos.

KULTUR JARDUERA, EUSKARA ETA JAIAK

ACTIVIDADES CULTURALES, EUSKERA Y FIESTAS

- Herriko agenda aberatsa dela deritzogu. Aniztasun handiko elkarteak ditugu Lazkaon eta beraien inurri lanak izugarri ematen dio herriari. Benetan eskertu nahi dugu beraien jarduna.
- Udalaren ikuspuntutik jarraipen gehiago egotea eskatuko genuke, elkarteekin elkarlan estu bat izatea, komunikazio jariakorragoa eta konplizitate gehiago. Jardueren ondorengo balorazio eza ikusten dugu. Zer hobetu, nola lagundu, erraztasunak eman... ez da egiten eta ondorioz elkarleen esku uzten da planifikazio guztia eta zama handiena. Udalak dirua jartzen du, nola ez, eta kitto.
- Jaien ekimen herrikoia bultzatu behar da. Herritarrekin eta herritarrentzako prestatutako jaiak behar ditugu: kuadrilen eguna indartu, txoznen eremua eta gestioa hobetu, mozorro eguna... herritarrak gogotsu daude eta baliabideak behar dituzte.
- EUSKARARI bere lekua eman eta errespetuz tratatu. EHBilduri askotan tokatu zaio udaletik jaso dituen testuak zuzentzea, akats ortografikoak direla, gramatikalak edota orokorrean testua bera trakets samarra izateagatik. Gu beti prest laguntzeko, baina mesedez, errespetua euskarari. Gaztelaniazko testuetan ez dugu horrelako akatsik jasotzen, zergatik ote?
- Creemos que la agenda del pueblo es rica. En Lazkao contamos con asociaciones muy diversas, y su trabajo constante aporta muchísimo al municipio. De verdad, queremos agradecerles su labor.
- Desde el punto de vista del Ayuntamiento, pediríamos más seguimiento, una colaboración más estrecha con las asociaciones, una comunicación más fluida y mayor complicidad. Echamos en falta una valoración posterior de las actividades. Qué mejorar, cómo ayudar, facilitar las cosas... no se hace, y como consecuencia, toda la planificación y la mayor parte del peso recae sobre las asociaciones. El Ayuntamiento pone el dinero, claro, y punto.
- Hay que impulsar una iniciativa festiva popular. Necesitamos fiestas pensadas con y para la ciudadanía: reforzar el Día de las cuadrillas, mejorar la gestión y el espacio de las txosnas, el día de disfraces... la gente está motivada y necesita recursos.
- Dar al EUSKERA su lugar y tratarlo con respeto. EH Bildu ha tenido que corregir en varias ocasiones textos del Ayuntamiento: por errores ortográficos, gramaticales o por la redacción general deficiente. Siempre estamos dispuestos a ayudar, pero, por favor, respeto para el euskera. No recibimos textos con esos errores en castellano, ¿por qué será?

Bi urte pasa dira, beste bi ditugu. EHBildu beti egongo da prest elkarrekin adostasunak eraikitzeko, herriaren onurarako.



Han pasado dos años, y nos quedan otros dos. EH Bildu siempre estará dispuesto a construir consensos en beneficio del pueblo.

kultur eragileekin harremanetan: elkarlanaren bidea sendotzen

En contacto con los agentes culturales: Fortaleciendo el camino de la colaboración

Azken asteetan, gure udalerriko kultur eragileekin bildu gara, beraien eguneroko jardunaren berri jasotzeko eta dituzten beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Oso harrera ona izan dugu, eta eskertzekoa da erakutsitako prestasuna eta konfiantza.

Argi ikusi dugu egoera eta errealitate asko daudela: proiektu txikiak eta handiak, egonkorak eta berritzaileak, baliabide desberdinekin eta erronka propioekin. Hain zuzen ere, horrek aberasten du gure herria.

Garbi dugu kultura bizia dugula herrian, eta hori altxor bat da. Bilera erronda hau oso aberatsa izan da guretzat, ideia asko jaso

ditugu, eta uste dugu benetako kultur politika parte-hartzaile baten oinarriak hor daudela. Gure konpromisoa argia da: kultur eragileekin harremanei jarraipena eman.

Ikasturte berriarekin, euskara, kirol eta hezkuntza arloetako gainerako eragileekin ere elkartuko gara. Udal politika publikoek herritarren beharrak entzun eta erantzun behar dituzte. Horretan jarraituko dugu lanean, herri justuago, aktiboago eta parte-hartzaileago baten alde.

Eskerrik asko herriko kultur eragile guztiei, zuek ateratzen diozue Lazkaori distira onena!



En las últimas semanas, nos hemos reunido con los agentes culturales de nuestro municipio para conocer de primera mano su actividad diaria y las necesidades que enfrentan. La acogida ha sido muy buena, y agradecemos sinceramente la disposición y la confianza mostradas.

Hemos podido comprobar que existen muchas realidades distintas: proyectos grandes y pequeños, consolidados y emergentes, con diferentes recursos y retos. Precisamente, esa diversidad es la que enriquece nuestro pueblo.

Tenemos claro que contamos con una cultura viva, y eso es un verdadero tesoro. Esta ronda de reuniones ha sido muy enriquecedora para nosotros, hemos recogido muchas ideas, y creemos que existen ya las bases para una verdadera política cultural participativa. Nuestro compromiso es claro: dar continuidad a estos contactos con los agentes culturales.

En el nuevo curso, también nos reuniremos con agentes del euskera, la educación y el deporte. Las políticas públicas municipales deben escuchar y responder a las necesidades de la ciudadanía. En ello seguiremos trabajando, por un pueblo más justo, activo y participativo.

¡Muchas gracias a todos los agentes culturales, vosotros sois los que dais el mejor brillo a Lazkao!



Gazteok etorkizuna *Lazkaon*

16 - 22 urteko Lazkaotarrak

Diagnostikoa

primavera 2025 udaberria

Lazkaoko EHBildu herriko gazteengana gerturatu, entzun eta alternatibak proposatzeko lanean ari da. Badirudi, gazteok daukagunarekin konformatu behar dugula, “es lo que hay” delakoarekin. Ez gaude konforme honekin, udaberri honetan 16 eta 22 urte arteko gazteekin bildu gara zenbait erataria, inkestak baliatu ditugu eta baita eragile batzuekin egindako bilerak ere.

Jarraian, honen guztiaren emaitzak azalduko dizkizuegu.

EH Bildu de Lazkao está trabajando con la juventud del pueblo, escuchándola para poder proponer alternativas reales.

A menudo parece que las y los jóvenes debemos conformarnos con un “es lo que hay”. Pero no estamos conformes.

Esta primavera nos hemos reunido con jóvenes de entre 16 y 22 años de diversas maneras: realizando encuestas y manteniendo reuniones con diferentes agentes. A continuación, os presentamos los resultados obtenidos.



AISIA OCIO

Asteburuetan taberna inguruan biltzen gara gazte gehienak, bestelako tokiak faltan nabari dira bertan lasai bildu ahal izateko eta, besteak beste, hauek proposatzen dira: gaztetxea, gaztelekua, eremu estali bat...

Inkestaren arabera, **gaztelekua** beharrezkoa ikusten du gehiengoak.

Jolasak eta sormenak oinarri izan behar dute, bertan haurrei eta nerabeei parte hartzeko aukera eman behar zaie. Aisia hezitzaile eta euskaldun baten bitartez, aniztasunean, parekidetasunean eta natura zein kultura zainduz. Honek guztiak lagunduko du etorkizunean Lazkaon pertsonen arteko harreman osasuntsu eta justuak sortzen.

Drogen eta alkoholaren kontsumoarekiko kezka nabaria da 16-22 urteko gazteen artean.

Alkohol eta droga kontsumoak arduratzen al zaitu? Orokorrean, droga kontsumoa oso gertu ikusten dugu. Tabernetan elkartzeko ohitura orokortu horrek ez du laguntzen.

La mayoría de las y los jóvenes se reúnen los fines de semana en torno a los bares, pero echan en falta otros espacios donde poder encontrarse de forma más tranquila. Entre las propuestas destacan:

- una casa de juventud (gaztetxe),
- un centro juvenil (gazteleku),
- o un espacio cubierto de uso libre.

BURU OSASUNA SALUD MENTAL

Inkesta erantzun duten gazteen % **90 baino gehiagorentzat** kezka iturri da buru-osasuna. Esku artean dituzten zenbait betebeharrak eragin zuzena dute buru-osasunaren bilakaeran. Ikasketak dira nabarmen 26-22 urteko gazteen kezka nagusia (% 76,9).

Antsietate krisirik izaten al duzu noizbait?

Oso kezagarria iruditzen zaigu erantzuleen ia erdiak noizbait antsietate krisiren bat jasan izana. % 36,5ek jaso du laguntza psikologikoa noizbait. Dena den badaude sozialki gaizki ikusia dagoelako edo garestia delako laguntzarik jaso ez dutenak ere.

Bizitzaren garestitzea eta kohesio sozialari erantzuteko erronka itzela da, baina badaude aukerak Lazkaon bertan herritik eragiteko eta buru-osasuna lantzeko.

Indarrak horretan jarri behar ditugu, etorkizunean gizarte osasuntsu bat izateko.

Más del 90% de las y los jóvenes encuestados afirman que la salud mental es una fuente de preocupación.

Los estudios son la principal causa de estrés entre quienes tienen entre 16 y 22 años (76,9%).


¿Has tenido alguna vez una crisis de ansiedad?

Resulta alarmante que casi la mitad de quienes respondieron haya sufrido alguna crisis de ansiedad.

El 36,5% ha recibido ayuda psicológica alguna vez, pero también hay quienes no la han recibido porque:

- socialmente está mal visto,
- o es demasiado caro acceder a ella.

El encarecimiento de la vida y la falta de cohesión social son grandes retos. Sin embargo, también existen oportunidades. En Lazkao, es posible actuar desde el propio pueblo en lo que respecta a la salud mental, y debemos volcar nuestras energías en ello para construir una sociedad sana.



Según la encuesta, la mayoría considera necesario contar con un **gazteleku**.

El juego y la creatividad deben ser la base del ocio, y se debe ofrecer a niñas, niños y adolescentes la posibilidad de participar. Apostamos por un ocio educativo y en euskera, que respete la diversidad, la igualdad, la naturaleza y la cultura. Todo ello ayudará a construir en el futuro una Lazkao con relaciones humanas más sanas y justas.

Existe una preocupación clara respecto al consumo de alcohol y drogas entre jóvenes de 16 a 22 años:

¿Te preocupa el consumo de alcohol y drogas?

En general, el consumo se percibe como algo muy cercano y habitual. El hecho de que el principal punto de encuentro sean los bares no ayuda a revertir esta situación.




GERTUTASUNA CERCANÍA

Inkesta erantzun duten gazteek diotenez, Lazkaoko udalak gazteen behar eta arazoekiko **gertutasun falta du, % 65 baino gehiagok erantzun dute hori**. Orokorrean, 16-22 urte bitarteko gazteak ez dira entzunak sentitzen. Erantzun horrek udal honek praktikatzan dituen **politika bertikalak azaleratzen ditu**. Herritarrengana gerturatu eta entzun ordez, dagoeneko hartuta dauden erabakiak jartzen zaizkie esku artean gazte eta herritarrei, beren iritzia kontuan hartu gabe. Horrek frustrazioa eta atxikipen falta eragiten du, horrelako politikekin ez da harrizkekoa gazteek politikarekiko urruntasuna sentitzea. **Lazkaoko EHBilduk tokia eman nahi die gazteen iritzi eta beharrei**.

16-22 urte bitarteko gazteen % 10 baino gehiagok erantzun dute inkesta. Herriko beste parte-hartze prozesu batzuetan jasotako erantzun kopuruarekin alderatuz, handia da ehunekoa hau.

Mila esker inkestan parte hartu duzuen guztioi eta azken aste eta hilabeteetan gurekin bildu zaretenoi. Ateratako ondorioak kontuan hartuko ditugu gure proposamenak egiterakoan.



Según las respuestas recogidas en la encuesta, más del **65%** considera que el Ayuntamiento de Lazkao **carece de cercanía con respecto a las necesidades y problemas de la juventud**. En general, quienes tenemos entre 16 y 22 años **no nos sentimos escuchados**.

Esta respuesta es una consecuencia directa de las políticas verticales que practica este Ayuntamiento. En lugar de acercarse a la ciudadanía y escucharla, se imponen decisiones ya tomadas, sin tener en cuenta la opinión de jóvenes ni del vecindario.

Esto genera frustración y falta de implicación. Con políticas de este tipo, no es de extrañar que muchas y muchos jóvenes sientan lejanía respecto a la política institucional.

EH Bildu de Lazkao se compromete a dar espacio real a las opiniones y necesidades de la juventud.

Más del 10% de las y los jóvenes de entre 16 y 22 años habéis participado en la encuesta. Comparado con otras experiencias de participación en el pueblo, este porcentaje es muy significativo.

Eskerrik asko de corazón a todas las personas que habéis participado en la encuesta y a quienes os habéis reunido con nosotras/os durante estas últimas semanas y meses.

Tendremos en cuenta todas las conclusiones recogidas, y servirán de base para nuestras próximas propuestas.

Lazkaoko jarduera ekonomikoaren azterketa

Estudio sobre la actividad económica en Lazkao

Oharra: hau txosten osoaren laburpena duzu. Txosten osoa irakurri nahi izanez gero, jo ezazu esteka honetara:



Nota: este es un resumen del informe completo. Si deseas leer el informe íntegro, accede al siguiente enlace



Txosten honek Lazkaoko jarduera ekonomikoaren egoera aztertzen du, hiru atal nagusitan banatuta: industria, ostalaritza eta merkataritza. Landa-eremua kanpo utzi da, haren eragina txikitzat jota. Azterketarako, 2020ko Udalaren merkataritza-gida hartu da oinarritzat, eta establezimenduei inkestak banatu zaizkie atez ate, guztira sektore bakoitzeko % 36-41 bitarteko parte-hartzea lortuz.

Ondorio orokorrak

Hiru sektoreetan kezka nabarmenak daude langile kualifikatuak aurkitzeko. Industrian eta ostalaritzan %90 inguruk aitortu dute arazo hori; merkataritzan, %81ek. Emaitza ekonomikoaren bilakaera ere kezka iturri da. 2020a izan zen urte okerreina industrian eta merkataritzan; ostalaritzan, 2021a. Galerak sektore guztietan jasan ziren, nahiz eta enpresa batzuek irabaziak izan zituzten. Ostalaritzan lokal alokatuen

Este informe analiza la situación de la actividad económica en Lazkao, dividida en tres grandes bloques: industria, hostelería y comercio. Se ha dejado fuera el ámbito rural, al considerarse de escasa incidencia. Para el análisis se ha tomado como base la guía comercial del Ayuntamiento de 2020, y se han repartido encuestas puerta a puerta entre los establecimientos, logrando una participación del 36-41% en cada sector.

Conclusiones generales


En los tres sectores se detecta una preocupación destacada por la dificultad para encontrar personal cualificado. En industria y hostelería, en torno al 90% reconoce este problema; en comercio, el 81%. La evolución de los resultados económicos también genera inquietud. El año 2020 fue el peor para la industria y el comercio; en hostelería, el 2021. Todos los sectores sufrieron pérdidas, aunque algunas empresas obtuvieron

kopurua oso altua da (%83), eta merkatariz-
tza ia erdia (%46). Alokairuaren prezioak
ostalaritzan merkataritzakoen bikoitza izaten
dira.

Udalarekiko harremanak erdiek baino gehia-
gok dituzte, baina %44,4 ez daude gustura.
Hobekuntzarako proposamenen artean
daude komunikazioa hobetzea, arazoei
konponbide arinagoak ematea eta udalaren
gertutasuna handitzea. Zerbitzuei dagokie-
nez, merkatarientzat garrantzitsuenak dira
bono-kanpainak, hondakin-bilketa eta kultu-
ra-programazioa

beneficios. En hostelería, el porcentaje de locales
en alquiler es muy alto (83%) y en comercio casi la
mitad (46%). Los precios del alquiler en hostelería
duplican a los del comercio.

Más de la mitad mantiene algún tipo de relación
con el Ayuntamiento, pero el 44,4% no está satisfe-
cho. Entre las propuestas de mejora se encuentran:
mejorar la comunicación, ofrecer soluciones más
ágiles a los problemas y aumentar la cercanía del
Ayuntamiento. En cuanto a los servicios, los más
valorados por el comercio son: las campañas de
bonos, la recogida de residuos y la programación
cultural.



OSTALARITZA	
2000	% 28,57
1250	% 14,29
1000	% 42,86
700	% 14,29

MERKATARITZA	
700 - 1000 €	% 11,76
550 - 750 €	% 35,29
500 - 550 €	% 29,41
400 - 450 €	% 23,53

Industria

Enpresa gehienak SL gisa eratuak dira eta
jarduera oso anitza dute. Enpresen %29 enpre-
sa-talde batean sartuta daude, nagusiki EAE
mailakoak. Langileei dagokienez, gehienek 1-5
langile dituzte, gutxi batzuek 50etik gora.
Bezeroen jatorria nagusiki Goierrikoa da, eta
enpresa handiek nazioartean saltzen dute.
Etorkizunerako faktore erabakigarrien artean
daude: kalitateko zerbitzua (% 4,83), bezeroe-
kiko komunikazioa eta giza baliabideak.

Azpiegiturei dagokienez, Ibabe industrialde-
ko trafikoa eta Zubierrekako estolderia
zerbitzu eskasa nabarmendu dituzte. Enpresa
txikien biziraupena eta hondakin-tasen
bidegabekeria ere aipatu dituzte.

Industria

La mayoría de empresas están constituidas como
S.L. y tienen actividades muy diversas. El 29% de las
empresas forma parte de un grupo empresarial,
principalmente a nivel de la CAV. En cuanto al perso-
nal, la mayoría cuenta con entre 1 y 5 trabajadores,
y unas pocas superan los 50. La clientela es princi-
palmente de Goierri, y las grandes empresas expor-
tan a nivel internacional. Los factores clave para el
futuro son: un servicio de calidad (4,83), la comuni-
cación con los clientes y los recursos humanos.

Respecto a infraestructuras, se han señalado como
problemáticas el tráfico en el polígono de Ibabe y la
deficiente red de saneamiento en Zubierreka. También
se han mencionado la difícil supervivencia de las peque-
ñas empresas y la injusticia en las tasas de residuos.

Ostalaritza

Taberna eta jatetxeen erdiek otorduak eskaintzen dituzte, gehienek eramateko ere bai. Langile-kopurua aldakorra da: 1etik 14ra, eta erdiak bost langileren azpikoak dira. Etorkizunerako gako izan daitezkeen zerbitzu-faktore garrantzitsuenak dira: bezeroari arreta ona (% 4,91), giro atsegina eta komun garbiak.

Sektorearen egoera eta eskaintza “erdipurdiko” moduan baloratzen da (3 eta 3,5 puntu artean), baina Lazkaokoa Goierrikoaren gainetik ikusten dute. Oharren artean daude: mahai eta toldoengatik kobratzen den tasa bidegabekoa dela, kale-garbitzaileek ez dutela birziklatzen eta auzo batzuetan ekintza gutxi antolatzen direla.

Merkataritza

Atal zabalena da: elikadura-dendak, arropa-dendak, ileapaindegiak, fisioterapia-zentroak eta abar biltzen ditu. Internet bidezko salmenta % 15ek baino ez dute eskaintzen, eta % 38k webgunea dute. Gehiengoak 1-2 langile ditu (% 62), eta badaude bi establezimendu handi, 17 eta 50 langile dituztenak.

Etorkizunerako faktore garrantzitsuenak dira: bezeroari arreta ona (% 4,83), gomendioak egitea eta giro atsegina. Arazo nagusitzat jotzen dituzte online salmenta eta zentro handien lehia, bezeroen kontzientzia falta eta belaunaldi-errelebo falta. Irtenbide modura proposatzen dira: kontzientziazio-kanpainak, online plataforma bateratua eta merkatarien elkarte indartsuagoa.

Hosteleria

La mitad de los bares y restaurantes ofrece comidas, y la mayoría también servicio para llevar. El número de trabajadores varía entre 1 y 14, aunque la mitad tiene menos de cinco. Los factores más importantes para el futuro del sector son: una buena atención al cliente (4,91), un ambiente agradable y la limpieza de los baños. La situación y la oferta del sector se valoran como "mediocres" (entre 3 y 3,5 puntos), aunque se percibe que Lazkao está mejor que otros municipios de Goierri. Entre los comentarios destacan: la tasa injusta por mesas y toldos, que los servicios de limpieza no reciclan y que en algunos barrios se organizan pocas actividades.

Comercio

Es el apartado más amplio: incluye tiendas de alimentación, ropa, peluquerías, centros de fisioterapia, etc. Solo el 15% ofrece venta por internet, y el 38% dispone de página web. La mayoría tiene entre 1 y 2 empleados (62%), aunque hay dos grandes establecimientos con 17 y 50 trabajadores.

Los factores clave para el futuro son: una buena atención al cliente (4,83), realizar recomendaciones y un ambiente agradable. Los principales problemas señalados son la competencia del comercio online y de los grandes centros, la falta de conciencia de los clientes y la ausencia de relevo generacional. Como soluciones se proponen: campañas de concienciación, una plataforma de venta online común y una asociación de comerciantes más fuerte.

